

## "Uzturre"

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-07-14: 5.

Nire garaiko baino gehiago zen nire aitaren belaunaldikide, halere alderdikide izan ginen urte askotan, eta baita kazetaritzan ere.

Guda aurreko kazetaritzan izenordekoak gehiago erabiltzen ziren izen-abizenak baino. Eta "Uzturre" tolosarra hauetako bat zen. Gaur oraindik geratzen diren Eusko Alderdi Jeltzaleko kazetari euskaldunetako bat zen orain eta Bilbon itzali denean. Neronek izenordez bakarrik ezagutzen nuela izan ditut harremanak euskal prentsaren bitartez, eten gabe, eta ia beti euskaraz idazten zuen euskal prentsan: "Eusko Deia", "Alderdi", "Tierra Vasca-n". Gero Bilbon "Deia" sortu zenean ere. Eta zor dizkiot nire liburuen aipamenak, bai Caracasen nengoela, eta gero hemen argitaratutakoak aipatzen ere.

Ez dut ahaztu nahi orain, beti aitortu izan diodan zor hau.

Jakina denez alderdia zatitu zutenean bi muturretan geratu ginen beste asko eta asko bezala. "Uzturre" alde batean eta neu bestean. Elkar erasoren bat edo beste izan dugu, bakoitzak bere puntua defendatzen, batez ere gogoan dut para bat aldiz garai honetan "Euskal Telebistan" aurrez aurre izanak ere.

Halere, ez ditut gaur, abertzale langilea joan denean, honetaz pena besterik sentitzen.

Gure arteko liskar minak gogarazten dizkidalako.

Orain galdetzen didate, "Uzturre" nor zen. Nire ustez, batez ere. Eusko Langile bat izan zen. Hasieratik Tolosan, guda garaian Bilbora arteko hartan; gero ihes egin behar izan zuenean, Iparraldean zegoela hautatu zuen ELAk Bruselan zuen bulegorako. Han iraun zuen urtetan, asko, Franco hil eta gero itzuli zen arte. Gaur arte dakigunez Sabin Arana fundazioko buru izan da.

Orain goian bego.